

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2303

286/2024 EBAZPENA, apirilaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, Maddi Zubizarreta Labaka, Garapen eta Prestakuntzako Zerbitzu Korporatibo-2ko buru izendatzen duena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzako Garapen eta Prestakuntza Zendariordeztan.

Aztertu dugu Giza Baliabideen Zuzendaritzako Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordeztan (Zuzendaritza Nagusia) Garapen eta Prestakuntzako Zerbitzu Korporatibo-2ko buruaren lanpostua betetzeko deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritza honen martxoaren 13ko 191/2024 Ebazpenaren bidez egindakoa (martxoaren 26ko EHAA, 62. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, bai eta haien baldintza profesionalak aurkeztutako merezimenduen arabera baloratu ere. Horrenbestez, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, Balorazio Batzordeak honako hau erabaki du Maddi Zubizarreta Labaka deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maddi Zubizarreta Labaka, Garapen eta Prestakuntzako Zerbitzu Korporatibo-2ko buru izendatzea, hain zuzen, Giza Baliabideen Zuzendaritzako Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordeztan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko apirilaren 22tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.